HIRIA-ZELULA METAFORA LURRALDE ANTOLAKUNTZA

HIRIAREN KONPLEXUTASUNA

Hirian giza aktibitate anitz ematen dira; gizakiaren bizitzarako beharrezko diren gerakizun guztiak hirieran pairatzen dira. Gizakiek osatzen dutenez, *bizirik* dagoela esan daiteke.
Zelularekin analogia handiak ditu, izaki bizidunak diren mailan; zelula batean eginkizun berdinak burutzen dira: elikatu, produzitu, babestu, mugitu. Bestalde, hiria aintzinean, hezi batek inguratzen zuen, limite bat ezartzen zuenak, eta forma zirkularrera asimilatzen zen, hiriaren funtzio nagusietako bat bertakoen babespena zelako, eta forma borobilak perimetro gutxien eta azalera gehien duen forma geometrikoa delako era naturalean egokiena zen....zelularen antzera

Hiria eta zelula, izaki bizidunak direlako, aldakorrak dira, denboran zehar eboluzionatzen dute, eta unean uneko beharrei aurre egin behar diete. Honela, hirigintzaren oinarrizko abiapuntua etorkizunaren beharren aurreikuspena egitea da.

HIRIGINTZAREN PARTEHARTZAILE MULTIDISZIPLINARRAK

Hiriaren konplexutasuna dela eta, eta bizitzaren eragile guztien partehartzaileak kontutan hartu behar direnez, hiriaren antolakuntzan ez dute arkitektoek soilik lan egiten; soziologoak, ekonomilariak, biologoak, geografoak, irisgarritasun teknikariak, ingurumen teknikariak.....

HIRI SISTEMA

Zelula bat beraz izaki bizidun bat da, bere kabuz funtzionatzen duena, independentzia duena, eta funtzionatzeko sistema bat behar du, antolatzeko modu bat. Egituratu behar da (kaleak, espazio publikoak, errepideak), orden bat behar du funtzionamendurako.
Zelula askok organismoa osatuko duten bezala, hiri askoren funtzionamenduak lurraldea osatuko du.

LURRALDEAREN ELEMENTU EGITURATZAILEAK

Sistema orokorrak: komunikabideak (errepidea, trena, portua...), hauek dira hiri sistemaren “zainak”
Bestelako sistema orokorrak: instalazio sistemak (ur hornidura, elektrizitatea, gasa, saneamendua etab...), lurralde mailako zerbitzuak (unibertsitateak, ospitaleak...)

LURRALDE ANTOLAKUNTZAKO ERABAKIEN HIERARKIA

DOT- Euskal Autonomi Erkidegoko erabakiak
PTP_PTS_- Lurraldearen zati baten (Area Funtzionalak) erabakiak, edota EAE.ko erabakiak sektore jakin baten inguruan (errepideak, ur inguruneak....)
PO- Plangintza orokorra: udalerri mailako erabakiak
PP- Plangintza partziala: hiri zati baten mailako erabakiak